



CIBUS 2022

Informazio gehiago:

Lucía de Artaza

94 470 65 00

agro@camarabilbao.com

2022ko MAIATZAK 3-6

Tokia: Parmako Erakusketa Zentroa (Italia)

Maiztasuna: Urtekoa

Norentzat: nazioko eta atzerriko elikaduraren,
retailaren eta HORE.CA-ren profesionalak

Izena emateko epea: 2021eko abenduaren 23a

Azokaren webgunea: www.cibus.it

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Euskadiko elikadura-industria atzerrian sustatzeko jarduketan barruan, enpresen parte-hartze taldekatua antolatuko du **CIBUS 2022** azokan. Azoka **Parman** egingo da, **2022ko maiatzaren 3tik 6ra**.

Egungo egoera aintzat hartuta, deialdian adierazitako datu guztiak behin betiko baieztatzeke daude; izan ere, COVID-19arekin lotutako osasun-baldintzen eta azokaren antolatzaileen segurtasun-protokoloen mende dago guztia.



AZOKAREN IZAERA



CIBUS 2022

CIBUS azokaren hogeita batgarren edizioa izango da 2022koa; merkataritza-ikuspuntua duen areto bat da, eta erreferentziako azoka da Italiako elikaduraren sektorean.

Espainiako nekazaritzako elikagaien industriako esportazioen hirugarren jomuga da Italia (2020an esportazio horiek 4.664 eurokoak izan ziren).

Mundu osoan, Italia da elikadurari garrantzi gehien ematen dion herrialdeetako bat, esanahi kultural eta sozial garrantzitsua baitu. Gainera, italiarrak dira Europan janaria eta edaria erosteko baliabide ekonomiko gehien erabiltzen dituztenak (batez beste ia 2.500 euro urtean per capita).


Hurrengo edizioan, azokak aurreikusten du 3.000 erakusketari baino gehiagok parte hartzea, 70.000 bisitari inguru jasoko dituzten 8 azoka-pabiloietan banatuta. Horrez gain, aurreikusten da "Cibus Buyers Programa" erosleen programak nazioarteko 1.500 erosle eta Italiako 500 erosle, retailer eta HORECA erakartzea Cibus Vip Club klubaren bidez.

Euskadi Basque Country Standa

CIBUS azokaren 2022ko edizioan, Eusko Jaurlaritzak 72 m² inguruko espazioa izango du parte hartzeko interesa duten Euskadiko elikadura-industriako enpresentzat.

Eusko Jaurlaritzak parte hartuko du azokan, betiere gutxieneko enpresa parte-hartzaileen kopuru bat badago. Ez badira sartzen interesa duten enpresa guztiak, izena emateko ordenari jarraituko zaio hautaketa egiteko.

- Erakusketa-azalera: 135.000 m²
- Erakusketariak 2021ean: 2.000 profesional (2022rako 3.000 aurreikusten dira)
- Bisitariak 2021ean: 40.000 profesional (2018an, COVIDaren aurretik, 82.000)
- Webgunea: www.cibus.it



EUSKADI BASQUE COUNTRY

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK



Azokan parte hartu nahi duten enpresa ekoizleek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza soziala, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; **beraz, EAEko pabiloian sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman.** Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Ekitaldia irekitzeko bezperan enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan, merkantzia jasotzeko eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko jardunaldia hasi aurretik behar beste-ko aurrerapenez.

Azokan zehar

- Azokan **Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango dira, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.

- Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standean arreta emateari uzten badio, salbuespe-
nezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurren-
go ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko
du (izena ematearen hurrenkera, etab.) Haren
eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku
librerik badago izena emateko eta ordaintzeko
datetan egindako gainerako eskari guztiei erant-
zun eta gero.

Halaber, enpresa batek edo batzuek standa aban-
donatzearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak -pre-
sentzia bateratuaren antolatzailea den heinean-
zigorren bat jasotzen badu, zigor hori berehala
jasanaraziko zaio arau haustea egin duen enpre-
sari edo enpresei.

- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan. Erabat debekatuta dago standetik inolako elementurik eramatea (grafikoak, aulkiak, lanparak...) Azoka amaitu eta gero elementuren bat falta bada, hori zuzenean fakturatuko zaio enpresa erakusleari. Azokaren aurretik *check list* bat egingo da, elementu guztiak adieraziz, eta amaierako beste *check list* bat, azoka bukatu eta gero.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio galdetegia** bete eta eskatzen zaienean entregatu.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA



Parte hartzeko eredua

Eusko Jaurlaritzak gehienez ere 65 m²-ko espazio bat izango du CIBUS 2022 azokaren edizio honetan, bertan parte hartzeko interesa duten Eukal Elikagai Industriaren enpresa guztientzat.

Eusko Jaurlaritzak azoka honetan parte hartuko du, baldin eta gutxienez parte hartzen duten enpresak badaude.

Edizio honetarako parte hartzeko eredu bakarra eskaintzen da: **stand INDIBIDUALA**

Parte hartzearen kostua

CIBUSen, 2022an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektoreko produktuak eraldatzen eta merkaturatzen dituzten enpresen parte-hartzea bultzatuko du.

Enpresa bakoitzak dagokion tipologia justifikatu behar du. Horretarako, nahitaezkoa da zinpeko aitortpena aurkeztea, inskripzioa formalizatzean sinatu eta zigilatutako lehengaiaren jatorriari buruzkoa.

Jatorrizko deitura, AGB edo kalitate-marka ziurtatu ofiziala duten produktuak dituzten enpresek ez dute Adierazpen horretako taula bete beharrik izango. Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko onorioetarako soilik baimendu beharko dituzte baime-nak.

Jarraian, diru-laguntzetarako egingo den sailkapena adieraziko dugu, partaidetza-kostuari dagokionez.

ENPRESEN SAILKAPENA

1. motako enpresak

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza %70 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

- **Stand indibiduala: 2.554,82 € + %21 BEZ = 3.091,33 €**

2. motako enpresak

Euskadin behar duten lehen sektoreko produktorik egon ez, eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza %50 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

- **Stand indibiduala: 4.258,03 € + %21 BEZ = 5.152,22 €**

3. motako enpresak

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen EZ diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produktzioa egonda ere.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %30ekoa izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

- **Stand indibiduala: 5.961,27 € + %21 BEZ = 7.213,14 €**

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA



Izena emateko epea: 2021eko abenduaren 23a

Parte hartu nahi baduzu, leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta **ordainagiria eta zinpeko adierazpena** bidaltzea Lucía de Artazari, helbide honetara: agro@camarabilbao.com

Enpresa parte hartzaileen **hautaketa** izena emateko **dokumentu guztiak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da.**

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE



Fitxa horretatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako, standaren errotulurako eta sustapenerako lantzen diren gainerako elementuetarako.

Behin enpresak baieztatzen badu azokara joango dela, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko azoka egiten bada. Azoka ez bada egiten, berriz, HAZIk dagokion zenbatekoa itzuliko du.

IZENA EMATEKO KUOTAREN ORDAINAGIRIA

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da.

Kontu zenbakia: ES49 3035-0179-61-1791069900 Laboral Kutxa, HAZIren izenean.

Kontzeptua: **"Enpresaren izena + CIBUS 2022"**.

ZINPEKO ADIERAZPENA



Derrigorrezkoa da enpresa eskatzaileek Zinpeko Adierazpen bat aurkeztea lehengaiaren jatorriari buruz, sinatuta eta zigiluarekin.

IZENA EMATEKO EPEA: 2021eko abenduaren 23a

HAZIk Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko dizue, parte hartzea baieztatu eta gero.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA



GARRANTZITSUA:

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak **EZ DU ESAN NAHI** enpresak azokan parte hartuko duenik. **Izena emateko epea amaitzen** denean (**2021eko abenduaren 23a**) **BAIEZTATUKO** da parte hartzea.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, STANDEAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino **handiagoa** bada, hautatutako enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK



Espazioa kontratatzea

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako **stand indibidualetan** banatuko da, stand-ak 9 m² ingurukoak izango dira.

Pabiloiaren dekorazioa

Stand-a apaintzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira EAEko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

- 1 mahai eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresa erakuslearen errotulua, konexio elektrikoa, biltegi komuna ur hargunearekin eta izozkailu txikia

Standetako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro -horien hazkundera edo aldaketa eragiten badu- erakusketakide bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko diona.

Pabiloia mantentzea (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, stand-a egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehienezko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie erakusketakideei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean. Enpresa erakusleren batek tope horiek gainditu nahi baditu, kostua bere gain hartu beharko du.

Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Ez da itzultzeko garraiorik antolatuko.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura, eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira. Esaten zaien orduan, enpresak derri- gor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago.

Hotz kamerak eta beste etxetresna batzuk

Enpresak eskatutako hotz ganberen edo bestelako etxetresna elektrikoen alokairua enpresak berak ordainduko du. Dena dela, Eusko Jaurlaritzak enpresen esanetara egongo da zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko, eta hornitzaileak enpresari fakturatuko dio zuzenean.

Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusketari guztiak azoka-antolakundeak argitaratzen duen katalogo ofizialean inskribatuta ager daitezen, bertan agertzen baitira ekitaldiko erakusketari guztiak (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira).

Eusko Jaurlaritzak azoka-erakundeak eskaintzen dituen sustapen-jarduera osagarri guztien berri emango die parte hartzen duten enpresei. Jarduera gehigarri horietan parte hartzeko balizko kostua enpresak hartuko du bere gain oso-osorik.